

BORDA, Itxaro (Oragarre, 1959)

Zure hatzaren ez galtzeko, 2014

HOTEL ITSASMIN

Eguna higatu dut haizemin

Maddi Oihenarten ahaide batek

Oinatza neurkatzen zidala

Eta hamen nago

Elantxobeko Itsasmin hoteleko

Gela handiegi honetan,

Gogoeta eta idazten:

Gaur bakarrik egingo dut lo,

Haize eta itsas min.

Udara pasa zait maitemin

Janis Joplinen abesti batek

Denbora urratzen zidala

Eta bertan nago

Elantxobeko Itxasmin hoteleko

Ohe gainean luzatuta,

Akitua eta idazten:

Gaur isilik egingo dut lo,

Maite eta itsas min.

Agorrila lerratu da eskemin

Hannah Arendten liburu batek

Muina inarrosten zidala

Eta barriz nago

Elantxobeko Itsasmin hoteleko

Ganbaran jada hotzitua,

Esperoan eta idazten:

Gaur zeu barik egingo dut lo,

Eske eta itsas min.